


PRESTAKUNTZA DUALEKO IBILBIDEA

**GIDA LABURRA
PRESTAKUNTZA DUALEKO IBILBIDEAN
PARTE HARTZEN DUTEN
ERAKUNDE/ENPRESETAKO
INSTRUKTOREENTZAT, TUTORE
AKADEMIKOENTZAT ETA IKASLEENTZAT**



EHU

Euskal Herriko Unibertsitatea
Universidad del País Vasco

Dokumentu honetan jasotako gida egin da UPV/EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatean eskaintzen den Prestakuntza Dualeko ibilbidean parte hartzen duten erakunde/enpresentzat, tutore akademikoentzat eta ikasleentzat. Ibilbide hori gauzatzen da "Unibertsitatea-Enpresa/Erakundea Prestakuntza Duala" Hezkuntza Lankidetzarako Hitzarmen bati esker.

Aurkibidea

1. SARRERA	3
2. PRESTAKUNTZA DUALEKO IBILBIDEAREN TESTUINGURU AKADEMIKOA	4
3. UNIBERTSITATEA-ERAKUNDE/ENPRESA PRESTAKUNTZA DUALEKO IBILBIDEAREN IKASKETA PLANA	5
4. PROZESUAREN URRATSAK IKASLEENTZAT.....	6
4.1 PRESTAKUNTZA DUALAREN EGUTEGIARI ETA ESKAINTZARI BURUZKO INFORMAZIOA	6
4.2 IZEN EMATEA ETA IRIZPIDEAK	6
4.3 HAUTAPEN PROZESUA	6
4.4 MATRIKULAZIOA	6
5. ERAKUNDE/ENPRESAKO EGONALDIA FORMALIZATZEA.....	7
6. IKASLEEN EGONALDIA ERAKUNDE/ENPRESAN	8
6.1 SEGIMENDUA - TUTORETZA	8
6.2 PRESTAKUNTZA DUALEKO INSTRUKTOREAREN EGINKIZUNAK	9
6.3 IBILBIDE DUALAREN TUTORE AKADEMIKOAREN EGINKIZUNAK.....	10
6.4 PRESTAKUNTZA DUALEKO IKASLEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK 11	
7. EBALUAZIOA.....	12
8. Gradu Amaierako Lana	13

1. SARRERA

Unibertsitateko prestakuntza dualaren (UPD) funtsa uste batean datza: hau da, arlo akademikoa eta lan arloa elkarren osagarri diren ikaskuntza ingurune direla. Prestakuntza dualean, erakunde kolaboratzaileetan aritzen diren ikasleek aukera dute ikuspegi praktiko batetik ikasteko eta beren enplegarritasuna hobetzeko.

Ibilbide duala oinarritzen da prestakuntza plan batean, uztartzen dituen ikasketa akademikoak eta erakunde/enpresa bateko prestakuntza praktikoa. Hiru abantaila ditu:

- 1- Lanbide kualifikazioa lortzen laguntzen du, unibertsitatea eta erakunde/enpresako prestakuntza konbinatuta.
- 2- Ikasleen laneratzea eta prestakuntza profesionala errazten ditu.
- 3- Langile kualifikatuak trebatzen ditu erakunde/enpresentzat, haien beharretara egokitutako prestakuntzaren bitartez.

Hori horrela, unibertsitateak eta erakunde/enpresa kolaboratzaileak beren gain hartzen dute, bi-biek, prestakuntzaren erantzukizuna, eta bakoitza bere aldetik diharduen arren, etengabe gainbegiratzen diote elkarri, eta hezkuntza prozesuren kalitatea bermatzen du horrek. Eredu honetan, prestakuntza duala garatzeko, funtsezkoa da unibertsitatearen eta erakunde/enpresa kolaboratzailearen arteko elkarlana. Biak ala biak agente aktiboak dira hezkuntza prozesuan, eta lagungarri da hori ikasleek ikasi eta trebetasunak eskura ditzaten.

Unibertsitatara etorrita, honako hauek dira prestakuntza dualaren ezaugarri nagusiak:

- Prestakuntza eskaintzaren gutxieneko intentsitatea (hau da, modalitate dualean eskainitako kredituak), tituluak dualtzat hartu eta dagokion aipamena edo akreditazioa lor dezaten.
- Elkarlana oinarritzen da unibertsitatearen eta erakunde kolaboratzailearen arteko lankidetzaren hitzarmenean, eta harreman esparrua eta alde bakoitzaren konpromisoak ezartzen ditu hitzarmen horrek.
- Gutxieneko antolakuntza behar da, alde bien aldetik (unibertsitatea eta erakunde kolaboratzailea), prestakuntza dualari dagozkion prestakuntza, koordinazio eta kudeaketa funtzioetarako.
- Erakunde/enpresa kolaboratzailean ikasitakoak balio akademiko bat du, eta ikasleek ikasitakoa erakutsi behar dute, graduako titulua lortzeko.

Bestetik, garrantzitsua da argitzea zer ezaugarri bereizten dute unibertsitateko prestakuntza duala kanpoko erakundearen edo enpresaren partaidetza duten unibertsitateko beste prestakuntza maila batzuetatik; hala nola kanpoko praktika akademikoetatik (curriculumetik kanpokoak edo borondatezkoak).

Kanpoko curriculumeko praktikek ez bezala, unibertsitateko prestakuntza dualak ezaugarri hauek ditu:


- Erakunde/enpresa kolaboratzailean eginiko egonaldiaren integrazio handiagoa curriculumean.
- Erakunde/enpresa kolaboratzailean eginiko prestakuntza aldien sekuentziazioa.
- Koordinazio estuagoa unibertsitatearen eta erakunde/enpresa kolaboratzailearen artean.
- Alor akademikoaren eta erakunde/enpresa kolaboratzailean eginiko lanaren tutoretza integratuagoa.
- Gradu Amaierako Lanaren (GRAL) integrazioa ibilbide dualean.

Azken batean, unibertsitateko prestakuntza dualak komunikazioa eta informazio trukea errazten ditu, hezkuntza sistemaren eta erakunde/enpresa kolaboratzaileen artean, eta etengabeko interakzio onuragarri bat sortzen da horri esker.

2. PRESTAKUNTZA DUALEKO IBILBIDEAREN TESTUINGURU AKADEMIKOA

UPV/EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatean, unibertsitateko prestakuntza duala eskaintzen zaie ikastegiaren bost graduetak hirugarren eta laugarren mailetako ikasleei, *egiten ikasi* nahi dutenak eta beren gaitasun profesionalak lan ingurune batean garatu nahi dituztenak, eta prest daudenak desafio exigenteak onartzeko, abian dagoen lantalde batean sartzeko eta emaitzak lortzeari begira lan egiteko.

Prestakuntza duala jasota dago Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatearen bost graduen ikasketa planean, irudian ikus daitekeen ibilbide gisa:



1. irudia

Prestakuntza duala bi irakasgaitan banatzen da: **Prestakuntza duala I (3. maila)** eta **Prestakuntza duala II (4. maila)**, bakoitza 24 kreditukoa. Batera, **48 hautazko kreditu** dira (24 ECTS+24 ECTS); hau da, ordaindutako 1.200 orduko egonaldia

erakunde/enpresan. Horri gehitu behar zaio **Gradu Amaierako Lana (12 kreditu)**. Prestakuntza dualeko ikasleek, beraz, graduako titulua lortzeko behar dituzten 240 kredituetatik 60 egiten dituzte ibilbide dualean.

3. UNIBERTSITATEA-ERAKUNDE/ENPRESA PRESTAKUNTZA DUALEKO IBILBIDEAREN IKASKETA PLANA

Ibilbide dualak konbinatzen ditu unibertsitate ikasketak eta erakunde/enpresa kolaboratzailean eginiko egonaldia. Beheko taulak laburbiltzen du fakultateko ikasleek hirugarren eta laugarren mailan egiten duten ibilbide akademikoa:

3. MAILA			
1. lauhilekoa		2. lauhilekoa	
Ikasleria EZ-DUALA	Ikasleria DUALA	Ikasleria EZ-DUALA	Ikasleria DUALA
Nahitaezko irakasgaiak	Nahitaezko irakasgaiak	Nahitaezko irakasgaiak	Nahitaezko irakasgaiak
Hautazko irakasgaiak	Ibilbide dualari buruzko prestakuntza eta haren definizioa	Hautazko irakasgaiak	PRESTAKUNTZA DUALA I Egonaldia erakunde/enpresan (24 ECTS)
4. MAILA			
1. lauhilekoa		2. lauhilekoa	
Ikasleria EZ-DUALA	Ikasleria DUALA	Ikasleria EZ-DUALA	Ikasleria DUALA
Nahitaezko irakasgaiak	Nahitaezko irakasgaiak	Nahitaezko irakasgaiak + GRAL	Nahitaezko irakasgaiak
Hautazko irakasgaiak	PRESTAKUNTZA DUALA II Egonaldia erakunde/enpresan (24 ECTS)	Hautazko irakasgaiak	GRAL DUALA (12 ECTS)

✓ Prestakuntza dualaren Ikasketa Plan espezifikoa

- Egonaldiak erakunde/enpresan:
 - **PRESTAKUNTZA DUALA I: 3. mailaren 2. lauhilekoa (24 ECTS)**
 - **PRESTAKUNTZA DUALA II: 4. mailaren 4. lauhilekoa (24 ECTS)**
- GRAL DUALA**, zerikusia duena erakunde/enpresan ikasitakoarekin:
 - **Gradu Amaierako Lana (12 ECTS)**

Beraz, egonaldiak hartzen ditu bi kalifikazio behar dituzten bi lauhileko akademiko; hau da, nota bat erakundean edo enpresan eginiko egonaldi bakoitzeko, **PRESTAKUNTZA DUALA I** eta **PRESTAKUNTZA DUALA II**.

4. IKASLEAK HAUTATZEA

4.1 PRESTAKUNTZA DUALAREN EGUTEGIARI ETA ESKAINTZARI BURUZKO INFORMAZIOA IKASLEEI

- 1.1. Informazioa bidaltzea posta elektroniko bidez.
- 1.2. Informazioa argitaratzea fakultatearen web orrian eta sare sozialetan.
- 1.3. Saio presentziala, fakultatearen gradu guztietako 2. mailako ikasleentzat.

4.2 IZEN EMATEA ETA IRIZPIDEAK

- 1.4. Dekanordetza arduratuko da prestakuntza dualaren ibilbidea egiteko eskaerak aurkezteko epea irekitzeaz.
- 1.5. Izena emateko, nahitaezkoa da gaindituta izatea graduko 90 kreditu. Curriculumuma eta motibazio gutuna eskatuko zaizkie.
 - 1.5.1. Curriculumuma: besteak beste, hizkuntzak, gaitasun teknologikoak, aldi baterako lanak eta boluntario lanak, ikasleen ordezkaritza, Buddy Programa, etab.
 - 1.5.2. Motibazio gutuna: ibilbide duala egin nahi izateko arrazoiak. Ikaslearen motibazio eta konpromisoari buruzko argudio sendoak azaldu behar dira.

4.3 HAUTAPEN PROZESUA

- 1.6. **Ikasleak hautatzea fakultatean.** Ezarritako irizpideen arabera, lehen hautapen bat egin eta hautatutako ikasleak proposatzen zaizkie erakunde/enpresei.
- 1.7. **Ikasleak hautatzea erakunde/enpresan.** Erakundeek edo enpresek behin betiko hautapenean parte hartzen dute, erakunde/enpresaren prestakuntza dualaren programan arituko den ikaslea aukeratuta. Enpresak, hautagaiaren curriculumuma eta motibazio gutuna jaso ondoren, interesatzen zaion edo zaizkion pertsonak aukeratzen ditu, elkarriketa bidez edo beste bideren bat erabilita.
- 1.8. **Erakunde/enpresak Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateari jakinarazten dio zein ikasle hautatu duen/dituen.**

4.4 MATRIKULAZIOA

- 1.9. **Hautatutako ikasleak:** matrikula egiten da Prestakuntza duala I irakasgaien, matrikulatzeko epe ofizialean.
- 1.10. **Hautatu EZ diren ikasleak:** ekainaren amaiera aldera, hautatu ez dituztela jakinarazten zaie, graduaren hirugarren mailako matrikula (dualik gabekoa) egin dezaten.

5. ERAKUNDE/ENPRESAKO EGONALDIA FORMALIZATZEA: HEZKUNTZA LANKIDETZARAKO HITZARMENA ETA PRESTAKUNTZA PROIEKTUA

Gradu eta masterreko unibertsitate titulu ofizialetako prestakuntza duala aitortzeko Unibasqen protokoloak berak adierazten duenez, arau esparrua eratzen du, besteak beste, uztailaren 11ko 592/2014 Errege Dekretuak, unibertsitate ikasleen kanpoko praktika akademikoak arautzen dituenak. Izan ere, protokolo horren arabera, prestakuntza dualaren aitortza lortzeko, beharrezkoa da ikaslearen eta prestakuntza egonaldia egingo den erakunde/enpresaren artean *“lotura juridikoa izatea eta ikasleak ordainsari bat eta entitateko gainerako langileenaren pareko aseguru bat jasotzea (langabeziaren prestazioari dagokionez izan ezik, hori ez baita beharrezkoa)”*. Egungo araudiaren arabera, hori lor daiteke lan kontratu baten bidez edo unibertsitatearen eta erakundearen arteko hitzarmen baten bidez, kanpoko praktika akademikoak arautzen dituen arautegiaren babesean.

UPV/EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatean, prestakuntza dualeko ibilbideak aintzat hartzen du UPV/EHUren gradu eta masterreko tituluetan prestakuntza dualeko programak garatzeko lankidetzak hitzarmenak arautzen dituen arautegia¹ (2020ko ekainaren 8ko EHAA, 111. zk.), bai eta ikasleen kanpoko praktika akademikoak arautzen dituen arautegia ere², Akademia Antolakuntzarako errektoreordearen 2019ko uztailaren 24ko Erabakiaren arabera (2019ko abuztuaren 6ko EHAA, 147. zk.).

Horrenbestez, prestakuntza dualeko programa bat abiarazteko, lankidetzak hitzarmen bat izenpetu behar dute unibertsitateak eta erakunde kolaboratzaile bakoitzak, eta hitzarmen horretan zehaztu behar dira: alde batetik, alde bakoitzaren betebeharrak; bestetik, UPV/EHUko ikasleek prestakuntza programa erakunde kolaboratzailean garatzeko baldintzak.

Prestakuntza programa egingo duen ikastegia arduratuko da lankidetzak hitzarmena izapidetzeaz eta hitzarmena erakunde kolaboratzaileekin batera izenpetzeaz.

Hitzarmenak sinatuko ditu ikastegiko dekanok edo zuzendariak, edo zeregin horretarako eskuordetutako dekanok edo zuzendaritza taldeko edozein kidek, alde batera utzi gabe kasu jakin batzuetan errektoreak sinatzeko aukera.

Hitzarmenak izapidetu eta sinatuko dira egonaldia hasi aurretik, eta behin sinatuta, artxibatu egingo dira prestakuntza dualeko programa sustatu duen ikastegian, unibertsitatearen jarraibideen arabera.

¹ <https://www.ehu.es/documents/d/gizarte-komunikazio-zientzien-fakultatea/normativa-formacion-dual-castellano> o <https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2020/06/2002213a.shtm>

² <https://www.ehu.es/documents/1432750/12749778/NORMATIVA+BOPV+CAS.pdf?dbcf49d00-b5b8-a8bf-5223-9a49102cc34d?t=1567514286000> edo <https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2019/08/1903746a.shtml>

6. IKASLEEN EGONALDIA ERAKUNDE/ENPRESAN

Dokumentu honen 5. puntuan adierazi den bezala, prestakuntza dualeko programa garatzeko, lankidetzak hitzarmen bat sinatu behar dute unibertsitateak eta erakunde kolaboratzaile bakoitzak, eta alde bakoitzaren betebeharrak jaso behar dira hitzarmen horretan.

Hitzarmen horretaz gain, prestakuntza proiektu bat landu behar da, ikasleak ibilbide dualean egingo duen egonaldi bakoitzeko (duala I eta duala II). Prestakuntza proiektuak elkarlanean landuko dituzte erakunde/enpresako instruktoreak, tutore akademikoak, praktiketako eta lan orientazioko dekanordeak eta prestakuntza dualaren koordinatzaileak, bat etor daitezten hezkuntza programa eta tituluaren gaitasunak erakunde/enpresak aurkeztutako proiektu profesionalarekin.

Helburuak zehaztean, kontuan hartuko dira ikasleek eskuratu beharreko oinarritzko gaitasunak, gaitasun orokorrak eta gaitasun espezifikoak. Era berean, proiektuaren edukiak definitzean, ziurtatu egin beharko da eskuratu beharreko gaitasunek lotura zuzena dutela eginiko graduiko ikasketekin.

Prestakuntza proiektuan zehaztuko dira: ikasleak erakunde/enpresan beteko duen egutegia/ordutegia, egingo dituen jarduerak, eskuratuko dituen gaitasunak, erabiliko diren ebaluazio sistemak, prestakuntza proiektua zer hizkuntzatan egingo den, eta hilean jasoko duen kopurua. Prestakuntza proiektua sinatuko dute ikasleak, erakunde/enpresako instruktoreak eta prestakuntza dualaren fakultateko tutoreak.

6.1 SEGIMENDUA - TUTORETZA

Ibilbide dualeko ikasle bakoitzak izango du unibertsitateak izendatutako tutore bat eta erakunde/enpresa kolaboratzaileak izendatutako tutore/instruktore bat. Bi-biak arduratuko dira batera prestakuntza proiektuaren garapena gainbegiratzeaz, unibertsitateko tutorearen gidaritzapean.

Erakunde/enpresako instruktorea eta unibertsitateko tutorea funtsezkoak dira ibilbide duala behar bezala egiteko. Tutoreak aholkua eta laguntza eskaintzen dizkio ikasleari, gaitasunak behar bezala eskuratzeko, prestakuntza egokia jasotzeko eta enplegarritasuna hobetzeko, eta ikaslea da bere ikaskuntza prozesuaren protagonista. Horri esker, ikasleak eskuratzen ditu UPV/EHUren Zeharkako Gaitasunen Katalogoan jasotako zeharkako gaitasun konplexuak.

Ikasleen egonaldien segimendu egokia egiteko, beheko laukietan jasotako gutxi gorabeherako egutegiak proposatzen dira, Prestakuntza duala I eta Prestakuntza duala II irakasgaien hainbat alderdi zehazte aldera:

- Bilerak erakunde/enpresan eginiko egonaldiaren hasieran, egonaldia egin bitartean eta egonaldia amaitzean, zehazteko zer gaitasun eskuratu behar dituen ikasleak, zer ikaskuntza emaitza lortu eta ebaluatu behar diren, eta zer jarduerak egin behar diren emaitza horiek lortzeko.

- Prestakuntza proiektua aldatzeko bilerak, egonaldian sor daitezkeen egoerek horretara behartzen dutenean.

Hiru aldeetako edozeinek (ikaslea, instruktorea eta tutore akademikoa) segimendu bilerak eska ditzake, noiznahi.

6.2 PRESTAKUNTZA DUALEKO INSTRUKTOREAREN EGINKIZUNAK

Erakunde/enpresa kolaboratzaileak tutore bat (instruktorea) jarriko dio ikasle bakoitzari, eta haren eginkizuna izango da prestakuntza jarduerak antolatzea, prestakuntza proiektuaren arabera eta unibertsitateko tutorearekin koordinatuta. Erakunde/enpresako instruktorea ikaslearen mentore edo gidaria izango da. Ondoan izango du bi egonaldietan eta egonaldi bakoitza amaitzean ebaluatuko du.

Erakunde/enpresa kolaboratzaileak izendatutako pertsonak lotura eduki beharko du erakunde/enpresarekin, ikaslea arituko den arlo/departamentuan esperientzia profesionala izango du, eta tutoretza egoki baterako behar diren ezagutzak izango ditu. Instruktorea eta unibertsitateko tutorea ez dira pertsona bera izango.

- *Erakunde/enpresako instruktorearen eginkizunak*

- a) Ikasleari harrera egitea eta haren lana antolatzea, prestakuntza proiektuaren arabera.
- b) Ikaslearen lana gainbegiratzea eta prestakuntza proiektuaren garapena bideratu eta kontrolatzea, elkarrekiko errespetuan eta ikaskuntzarekiko konpromisoan oinarritutako harreman batean.
- c) Erakundearen antolakuntza eta funtzionamendua azaltzea ikasleari, bai eta kontuan hartu beharreko araudia ere; bereziki, laneko segurtasun eta arriskuei buruzkoa.
- d) Lankidetzat hitzarmeneko jarduerak koordinatzea unibertsitateko tutorearekin batera, prestakuntza proiektuan egin beharreko aldaketak proposatzea, proiektuan sor daitezkeen gorabeheren berri ematea eta horiek konpontzea, eta azterketak egiteko baimenak kontrolatzea.
- e) Ebaluazioan parte hartzea, amaierako txosten bat bidalita unibertsitateko tutore akademikoari, ikaslearen prestakuntza proiektuari buruzkoa, egonaldia amaitzean. Instruktoreak, ikasleak eginiko ordu kopuruen berri emateaz gain, baloratu beharko ditu prestakuntza proiektuan jasotako gaitasun orokorrak edo espezifikoak. Amaierako txostena egiteko, unibertsitatearen eredia erabili ahal izango da, eta beste bat erabili nahi izanez gero, tutorearekin adostu beharko da.
- f) Prestakuntza osagarria ematea ikasleari, prestakuntza proiektua egiteko.
- g) Prestakuntza proiekturako behar diren baliabide materialak ematea ikasleei.

- h) Ikasleak bultzatzea eta estimulatzea, berrikuntza, hobekuntza eta ekintzailatza proposamenak egin ditzaten.
- i) Erakunde/enpresaren atak zabaltzea unibertsitateko tutoreari, dagozkion betekizunak bete ditzan.
- j) Isilpean gordetzea erakundeko tutore gisa eskuratutako ikasleari buruzko edozein informazio.
- k) Ikasleari laguntzea erakunde/enpresan eginiko egonaldian, eta sor daitekeen edozein gorabehera konpontzea.

6.3 IBILBIDE DUALAREN TUTORE AKADEMIKOAREN EGINKIZUNAK

Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateak tutore akademiko bat jarriko dio prestakuntza duala egingo duen ikasle bakoitzari, bete behar dituen eginkizunetarako prestakuntza eta profil egokiekin. Tutore akademikoak prestakuntza jasoko du erakunde/enpresan erabiliko den prestakuntza dualaren ereduari buruz, tituluaren ardura duen ikastegiak antolatuko dituen ikastaro edo jardunaldien bitartez.

- *Fakultateko tutoreen eginkizunak*

- a) Prestakuntza proiektuaren garapen egokia zaintzea.
- b) Lankidetzaz hitzarmeneko jarduerak koordinatzea erakunde/enpresako instruktorearekin, eta ikaslearen lanaren segimendu eraginkorra egitea.
- c) Prestakuntza proiektuaren aldaketak baimentzea.
- d) Ikaslearen lana ebaluatzea, erakundeko tutorearen amaierako txostena jasotzean.
- e) Isilpean gordetzea tutore lanetan eskuraturiko edozein informazio.
- f) Gorabeheren berri ematea praktika programaren arduradunari edo, ikastegiak hala ezarriz gero, tituluko praktiken arduradunari.
- g) GRALaren tutore lana egitea. Besteak beste: lanaren ezaugarriak azaltzea ikasleari, lana orientatzea, helburuak betetzen ari direla egiaztatzea, lanaren segimendua egitea eta txosten bat idaztea defentsaren aurretik.
- h) Gainbegiratzea eta, hala badagokio, eskatzea, desgaitasuna duten ikasleek behar dituzten baliabideak, aukera berdintasuna, diskriminaziorik eza eta irismen unibertsala bermatzeko.

6.4 PRESTAKUNTZA DUALEKO IKASLEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

Prestakuntza dualeko ikasleen eskubideak dira:

- a) Prestakuntza proiektuak iraun bitartean, unibertsitateko tutorearen eta erakunde kolaboratzaileko tutorearen tutoretzak jasotzea.
- b) Zuzendari edo zuzendarikide bat edukitzea GRALean edo masterrean, kasuaren arabera, bat etorririk indarrean dagoen arautegiarekin, prestakuntza proiektuak jasotakoari egokituta.
- c) Prestakuntza proiektua ebaluatua izateko eskubidea, kontuan izanik ikasleak proiektuaren inguruan egin beharreko azken memoria eta erakundeko tutorearen amaierako txostena.
- d) Prestakuntza proiektua egin duten erakunde kolaboratzailearen amaierako txostena eskuratzeko, espresuki aipatuta eginiko jarduera, iraupena eta errendimendua.
- e) Ekarpen ekonomiko bat jasotzea erakunde kolaboratzailetik, bertan eginiko lanagatik.
- f) Jabetza intelektual eta industrialerako eskubidea, arloko legeriak ezarritako baldintzetan, ikasleek dagokion lagapen edo transmisio dokumentua sinatu dutenean izan ezik.
- g) Laneko segurtasun eta arriskuen prebentzioari buruzko informazioa jasotzea erakunde kolaboratzailearen eskutik.
- h) Akademia, prestakuntza, ordezkaritza eta partaidetza arloko zereginak betetzea, garaiz jakinarazita erakunde kolaboratzaileari.
- i) Desgaitasuna duten ikasleen kasuan, baliabide egokiak edukitzea tutoretza jasotzeko, informazioa eskuratzeko, lan egiteko eta ebaluatua izateko, aukera berdintasunean.
- j) Desgaitasuna duten ikasleen kasuan, kontziliatu ahal izatea prestakuntza proiektua eta desgaitasunari loturiko jarduera eta egoera pertsonalak.

Gainera, prestakuntza dualeko programan, ikasleek betebeharrak hauek izango dituzte:

- a) Unibertsitatearen kanpoko praktikei buruzko arautegia betetzea.
- b) Prestakuntza proiektua ezagutzea eta betetzea, aintzat harturik erakunde kolaboratzailearen tutorearen jarraibideak, unibertsitateko tutorearen gainbegiradapean.

c) Prestakuntza proiektua garatu bitartean, harremanetan egotea unibertsitateko tutorearekin eta sor daitekeen edozein gorabeheraren berri ematea, eta eskatzen zaizkien dokumentuak eta tarteko segimendu txostenak entregatzea, azken memoria barne.

d) GRALeko zuzendariari edo zuzendarikideari ematea GRAL/MALean aurrera egitea eragotzen dien edozein gorabeheraren berri.

e) Lanean hastea erakunde kolaboratzailean aurrez adostutako egunean, prestakuntza proiektuan ezarritako ordutegia betetzea, eta erakundearen funtzionamendu, segurtasun eta lan arriskuen prebentzio arauak betetzea.

f) Prestakuntza proiektua garatzea eta erakunde kolaboratzailearekin hitzartutako jarduerak egoki betetzea, proiektuan ezarritako lan ildoen arabera.

g) Prestakuntza proiektuaren azken memoria eta, hala badagokio, tarteko txostenak idaztea, eta tutore akademikoari entregatzea.

h) Isilpean gordetzea erakunde kolaboratzailearen barne informazioa, eta beren lanei buruzko sekretu profesionala gordetzea, egonaldian zehar eta egonaldia amaitzean.

i) Erakunde kolaboratzailearen politika errespetatzea, eta UPV/EHUren izen ona zaintzea.

j) Indarrean dagoen araudian ezarritako beste edozein betebeharrak.

3.- Aurreko atalean aipaturiko betebeharrak huts eginez gero, bertan behera utzi ahal izango da programa. Kasu horretan, UPV/EHUK edo erakunde kolaboratzaileak ez-betetzearen berri emango dio hitzarmen honen bidez eratutako Batzorde Mistoari, eta batzorde horrek erabakiko du, hamar eguneko epean, prestakuntza proiektua bertan behera utzi ala ez.

4.- Ikasleek huts egin ahal izango dituzte erakunde kolaboratzailean dituzten betebeharrak, azterketak egiteko, horren berri emanez hiru egun lehenago erakundeko tutoreari eta unibertsitateko tutoreari.

Arrazoi akademikoek eragindako beste hutsegiteetan (edo beste arrazoi batzuegatiko absentzietan), unibertsitateko tutoreari eta erakundeko tutoreari ohartaraziko zaie, lehenbailehen, eta unibertsitateko tutore akademikoaren baimena beharko da.

7. EBALUAZIOA

Graduko Ikasleen Ebaluaziorako Arautegiak ezarri bezala, ebaluazioak hezkuntzara begirakoa izan behar du, eta informazio eta orientazio egokia eskaini behar dio ikasleari, gaitasunen jabetze mailaren eta ikaskuntza prozesua hobetzearen inguruan. Era honetako etengabeko ebaluazio bati dagokion bezala, unibertsitateko prestakuntza dualean ikasleek aldian behin jasotzen dute beren lanari buruzko feedbacka, bi tutoreen aldetik.

Unibertsitateko tutoreari dagokio gidari izatea prestakuntza jarduerak gainbegiratzeko eta ebaluatzeko lanetan, eta lan hori egingo du beti erakunde/enpresa kolaboratzaileko instruktorearekin koordinatuta. Bere aldetik, legeak ezarritako epean eta moduan entregatuko ditu ikasleak ebaluaziorako behar diren entregagarriak/txostenak, prestakuntza aldiaren hasieran eginiko proiektuaren arabera.

Egonaldi bakoitza amaitzean, erakunde/enpresako instruktoreak tutore akademikoari bidaliko dio Amaierako Txosten Duala (Erakunde/Enpresa), eta txosten hori erabiliko da ikasle bakoitzaren emaitzak ebaluatu eta haren egonaldi bakoitza kalifikatzeko, zailtasunak aztertzeke eta hurrengo aldiari begira helburu berriak finkatzeko.

- **Ekaina-Uztaila** › Amaierako Txosten Duala I (Erakunde/Enpresa)
- **Abendua** › Amaierako Txosten Duala II (Erakunde/Enpresa)

Ikasleek egonaldi bakoitza amaitzean beteko dute Amaierako Txosten Duala (Ikasleak), eta data hauetan bidaliko diote unibertsitateko tutore akademikoari:

- **Ekaina-Uztaila** › Amaierako Txosten Duala I (Ikasleak)
- **Abendua** › Amaierako Txosten Duala II (Ikasleak)

Gainera, ikasleen betebeharra da ere hileko txostena bidaltzea unibertsitateko tutore akademikoari.

Dokumentu hauek erabiliko dira tutoreak erakunde/enpresako egonaldiaren segimendu egokia egiteko.

1. Hileko txostena: ikasleak hil bakoitzeko azken astean beteko du, eta hurrengo hilabeteko hasieran bidaliko dio tutore akademikoari.
2. Amaierako txostena: ikasleak egonaldi bakoitza (I eta II) amaitzean beteko du, eta data hauetan bidaliko dio tutore akademikoari:
 - 2.1. Amaierako Txosten Duala I (Ikaslea) – duala I egonaldiko azken hilean
 - 2.2. Amaierako Txosten Duala II (Ikaslea) – duala II egonaldiko azken hilean

8. Gradu Amaierako Lana

EHUduala eredian, GRALak zerikusia izan behar du erakunde/enpresa kolaboratzailean erakunde horretako pertsona baten zuzendarikidetzaren pean eginiko lanarekin, UPV/EHUren arautegiaren arabera.

Prestakuntza dualaren ezaugarriak direla eta, egokiena izango litzateke ikasketa amaierako lana zuzenduko duen pertsonak prestakuntza dualeko ikaslearen tutoretza lana egin izana; bestela, ezinbestekoa izango da ziurtzea ikasleen prestakuntza gidatzen duten bi figuren arteko komunikazioa eta koordinazioa.

GRALaren zuzendariaren edo zuzendarikidearen ardura izango da:

- Lanaren ezaugarriak azaltzea ikasleei.

- Ikasleei orientazioa ematea lanaren garapenean.
- Finkatutako helburuak betetzen direla zaintzea.
- Lanaren segimendua egitea eta txosten bat idaztea, defentsaren aurretik, eta txosten hori helaraztea ikasleari.

EHUduala prestakuntza egingo duten ikasleek EHUduala aitortza jasoko dute Tituluaren Gehigarri Europarrean eta, hala badagokio, tituluari, UPV/EHUko arautegian ezarritako baldintzetan.